

Emakumea frankismoan . GIZONAREKIKO
MENPEKOTASUNA.

PARTEHARTZE DEMOKRATIKOA ETA BOTERE FAKTIKOAK I



Short Paper 2024/04

1. Sarrera

Frankismoaren diktaduraren testuinguruan, emakumeek menpeko eta mendeko egoera bizi izan zuten, botere faktikoek bultzatuta. Erregimenak, botere faktiko gisa jarduten zuten erakunde bidez –hala nola Eliza Katolikoa, Falange Españolaren Sección Femenina, eta Acción Católica– emakumeen rol tradizionalak indartu eta demokraziaren aurkako politika baztertzailerak ezarri zituen.

Honen aurrean, emakumeek hainbat eskubide demokratiko aldarrikatu zituzten, nahiz eta presio handiak jasan. Dokumentu honetan, Frankismoaren garaian emakumeen eskubideen murrizketa aztertuko dugu, baita botere faktikoek egindako esku-hartzeen bidez emakumeen emantzipazioaren aurka erabilitako politikak ere.

2. Botere Faktikoak eta Haien Eragina

Botere faktikoak erakunde politikoetatik kanpo dauden gizarte-sektoreak dira, baina presio-ahalmen handia dute Estatuaren politika eta egiturak moldatzeko. Frankismoaren garaian, botere faktiko nagusiak honakoak izan ziren:

- Eliza Katolikoa: Moralaren eta hezkuntzaren kontrola bereganatu zuen, emakumeen betebeharrak zehaztuz.
- Sección Femenina: Emakumeen heziketa, ideologia eta bizimodua erregimenaren balioen arabera moldatzeko sortutako erakundea.
- Acción Católica: Elizarekin loturiko mugimendua, emakumeen kontrol sozial eta moralerako funtsezkoa izan zena.

Erakunde horiek emakumeen askatasuna mugatu eta haien mendekotasuna areagotzeko egituratu ziren.

3. Sección Femenina: Emakumeen Hezkuntzaren eta Jokabidearen Kontrola

1943ko uztailaren 12an antolatu zen ofizialki Sección Femenina, Falange Española de las JONS alderdiaren emakumezko adar gisa. Pilar Primo de Riverak zuzendutako erakunde hau emakumeen sozializazioaren eta hezkuntzaren kontrolaz arduratu zen.

3.1. Helburu eta Estrategiak

- Emakume gazteak heztea Espainiako erregimenaren ideologiarekin bat etor zitezten.
- Kristau moralari eutsiz, emakumeen obedientzia eta mendekotasuna indartzea.
- Familia nuklearra sendotzea, emakumeak ama eta etxekoandre gisa soilik ikustaraziz.

Sección Femeninak emakumeen papera erabat mugatzen zuen, eta Pilar Primo de Riverak 1941ean adierazi zuen bezala: *"Emakumeak beti gizonaren menpe egon behar dira"*. Horrek adierazten du emakumeek beren askatasuna eta autonomia galtzen zituztela.

3.2. Gipuzkoako Egoera

Sección Femenina Gipuzkoako herri gehienetan presente egon zen, eta emakumeen kontrol soziala bermatzeko hainbat mekanismo ezarri zituen. Emakumeen kirolak eta

ikastaroak antolatzen bazituzten ere, helburua ez zen haien garapen pertsonala, baizik eta Francoren balioen barneratzea.

4. Acción Católica: Eragin Soziala eta Moralaren Kontrola

4.1. Acción Católica-ren Jatorria

Pio XI.a aita santuak bultzatuta, Acción Católica Elizaren apostolutzarako mugimendua izan zen. Frankismoan, Elizarekin elkarlanean, emakumeen bizitza arautzeko eta kontrolatzeko tresna bilakatu zen.

4.2. Emakumeen Kontrol Soziala

- Ekintza Katolikoko taldeak Espainiako parrokia guztietan presente egon ziren.
- Emakumeen portaera morala ebaluatzen zuten, eta haien ospea kalte dezaketen jokabideak gaitzesten zituzten.
- Emakumeen ohorea beren obediencia eta moral garbian oinarritzen zen.

Herrietako Ekintza Katolikoko taldeek emakumeen bizitza intimo eta soziala zuzenean epaitzen zuten. Adibidez, eztei-egunean loreak merezi ote zituzten erabakitzen zuten, emakume hori ohoretsua zen ala ez ebaluatuz. Honek emakumeek jasaten zuten presio sozial itogarria erakusten du.

5. Frankismoaren Politiken Ondorioak

5.1. Eskubide Demokratikoen Murrizketa

Frankismoak emakumeen eskubide demokratikoak deuseztatu zituen:

- Hauteskunde-eskubidea ezabatzea.
- Emakumeak lan-merkatuan parte hartzea galaraztea.
- Familia barruan emakumeen mendekotasuna indartzea.

5.2. Hezkuntza eta Emakumeen Papera

- Hezkuntza sistemak emakumeak etxeko lanetara eta haurren heziketara mugatu zituen.
- Unibertsitateko parte-hartzea murriztu zen.
- Ikasketa-planak emakumeentzako moldatu ziren, haien independentzia ez bermatzeko.

6. Ondorioak eta Emakumeen Erresistentzia

Emakumeen emantzipazioa oztopatzeko asmoa izan arren, hainbat emakume taldek erresistentzia erakutsi zuten. Frankismoan zehar, emakume aktibista eta erresistenteek eskubide demokratikoak berreskuratzeko borrokan jarraitu zuten. 1975ean Frankoren heriotzarekin, emakumeen eskubideen aldeko mugimenduak indartu egin ziren, eta Espainian trantsizio demokratikoan zehar, berdintasunaren aldeko aldarrikapenak garrantzia hartu zuen, mendebaldeko beste herrialdeetan bezala.

5. Gaur Egungo Botereen Eraginak

Gaur egun ere, emakumeek etxetik kanpo eta etxean lan egiteak, antolaketa ezberdinetan parte hartzea mugatzen du. Nahiz eta Sección Femenina eta Acción Católica desagertu, gaur egungo botere faktikoek –hala nola komunikabideek eta publizitate-industriak– emakumeen rol konkretu batzuek indartzen dituzte oraindik.

Beharbada frankismo garaian bete zituzten berdinak ez dira baina bai interes konkretu batzuei erantzuten dienak. Horregatik gaur egungo emakumea ere mugatuta dago zentzu horretan (emakume langile, polit, alaia, ama ona, emazte ona, alaba ona, atsegina...), etxean zein etxetik kanpo lan egiten duena zalantzarik izan gabe bere onerako egiten dituela ordu guzti horiek lanean, aisialdirako astirik gabe.

5.1. Komunikabideen Papera

1970eko hamarkadatik gaur egunera, komunikabideek eta beste botere faktiko batzuek emakumeen irudiari eragiten jarraitzen dute. Telebistak, publizitateak eta sare sozialek emakumeen ideal konkretuak sustatzen dituzte, gehienetan haien autonomia eta independentzia mugatuz.

6. Ondorioa

Frankismoan, emakumeen emantzipazioa sistematikoki zapalduta izan zen botere faktikoek ezarritako mekanismoen bidez. Beldurra, errepresioa eta kontrol soziala erabiliz, emakumeak gizartean menpeko izaten jarraitu zuten. Gaur egun, nahiz eta frankismoa bukatu, hainbat oztopo mantentzen dira, eta emakumeen benetako emantzipazioa lortzeko borroka oraindik ere beharrezkoa da.

Frankismoaren historia osoan, botere faktikoek emakumeen emantzipazioa eragozteko estrategia ugari erabili zituzten. Eliza Katolikoak, Sección Femeninak eta Acción Católica emakumeen autonomia mugatzeko eta haien eskubideak zapaltzeko mekanismoak ezarri zituzten. Hala ere, emakume askok aurre egin zioten errepresio

horri, eta haien borrokari esker, demokrazia berreskuratzeko bidean pausoak eman ziren. Hori dela eta, gaur egungo emakumeen eskubideen aldeko borrokak iraganeko injustizien memoria mantendu eta berdintasunaren alde lan egiten jarraitzea eskatzen du. Ahaztu gabe, orain ere, gaur egungo botereek, eskura dituzten trena guztiak erabiltzen dituztela beraien helburuak lortzeko, eta horrek suposatzen badu emakumeak modu batera edo bestera menderatzea, egin egingo dutela.

Botere hauen interesak, ez dira gehienetan pertsonen gehiengoaren interes berdinak, ondorioz, gehiengoaren interesen alde, eta batez ere emakumearen menpekotasunaren alde egitea geuri dagokigu, ondo informatuaz, hausnarketarako nahikoa tresna eskuratuaz eta nola ez, interes hauen alde lan eginaz beste pertsona batzuekin batera.